

Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseilua ATARRABIA

Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

1.- Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseiluaren oinarritze legala.

Herriko taldeen parte-hartzea udal esparruan bi arrazoen ondorio da: alde batetik, gizartearen demokratizazioarena eta, beste batetik, hiritarren intereseko udal eskumeneko hainbat arlotan udalak daraman jokabide demokratikoarena.

2006. urtean, Atarrabiako Udalak Kiroletako Udal Kontseilua sortu zuen, hiritarren ordezkariak bideratzeko, eztabaidari eta harremanei bidea emateko eta Kirolaren arloan Udalak dituen lanen inguruan parte-hartze esparru bat sortzeko.

Aipatu Kontseilua lau urtez martxan aritu ondoren, egoki ikusten dugu udalaren kirol instalazioetako abonatuaren parte-hartzearen sakontzea, Udalak 2010eko otsailaren 25ean egin Osoko Bilkuran onartutako Hiritarren Parte-hartzearen Araudian aurreikusitakoari jarraiki. Araudi honek, halaber, eta Alkatearen edota erakundearen Udal fitxategian izena emana duten erakundearen %10aren proposamena medio, sektorekako kontseiluen sortzea aurreikusten du hiritarren parte-hartze organo gisa. Hala ere, kontseiluok ezin izanen dute Legeak arautzen dituen ordezkariak-organoei dagozkien erabakitze-ahalmenetan kalterik egin inoiz.

Hiritarren Parte-hartzearen Araudiaren laugarren tituluko 23. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Araudi honen bidez Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta jardura eremua ezartzen dira.

2.- Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseiluaren (AUK) definizioa eta xedea.

Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseilua, aurrerantzean AUK, udal politikaren jardunetik sortutako organoa da, udalaren kirol instalazioetako abonatuaren interesak babesteko eta kontseilu honetan abonatuaren ordezkariak eta politikoen ordezkariak bilduko dituen organoa.

AUK kontsulta- eta eztabaida-organoa da, hiritarren parte-hartzea bideratzeko, eztabaidari eta harremanei bidea emateko eta Kirolaren arloan Udalak dituen lanen inguruan parte-hartze esparru bat sortzeko.

AUK Atarrabiako herriaren Organo Sektoriala da eta honen xedea da hiritarren eta erakundearen parte-hartzea bideratzea kirol instalazioen eta hauek garatzen diren aktibitateen inguruan sor daitezkeen udal aferetan.

3.- Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen Udal Kontseiluaren osaketa.

Abonatuen Udal Kontseilua ondokoek osatuko dute:

A) Kontseiluko lehendakaria:

Alkatea edota honek izendatutako korporazio-kide delegatua.

B) Kontseiluko lehendakariordea:

Udalaren kiroletako batzorde informatiboaren lehendakaria

C) Kideak:

- Udaleko talde politiko bakoitzaren ordezkari bana.
- Udalaren Kirol Instalazioetako Abonatuen bost ordezkari.
- Udalaren Kirol Teknikaria, ahotsarekin baina botorik gabe.

D) Idazkaria:

Kontseiluak berak izendaturiko pertsona izanen da Kontseiluaren Idazkaria

E) Abonatuen ordezkariak, adinez nagusiak izan beharko dutenak, eranskinean zehazten den hauteskunde-prozesuaren bitartez hautatuak izanen dira. Hautatuak izateko abonatuak izan eta kuotak ordainduak izan beharko dituzte.

F) Abonatuen pertsona ordezkarien agintaldiaren iraupenak lau urtekoa izanen da. Hala ere, hauen agintaldia abonatuaren ordezkari berriak hautatu arte luzatu ahalko da.

G) Abonatuen ordezkariaren batek, edozein arrazoi medio, kargua utzi edo honi uko egiten badio, Alkatearen ebazpenaren bidez izendatuko da honen ordezkaria, hauteskunde-prozesuan lorturiko bozka kopuruari jarraiki dagokion erreserba-zerrendako kideen artean.

H) Erreserba-listako hautagaien zerrenda agortzen bada, Alkateak abonatuaren artean garrantzi berezia duen pertsona baten edota hainbaten aldeko proposamena egingen du. Proposamena AUKko kideen gehiengo sinpleak berretsi beharko du. Pertsona honen edota hauen agintaldiak, hutsik geratutako postu horiek betetzeko egingen den hauteskunde-prozedura egin artean iraunen du. Hauteskunde prozedura hori dagokion urteko iraileko lehen edo bigarren ostiralean egingen da.

4.- Funtzioak.

Abonatuen Udal Kontseiluaren funtzioak ondokoak dira:

- a) Herriko kirol instalazioen sustapenari dagozkion eztabaida guztietan parte-hartzea. Hartara, ekintza-programak eta -memoriak egingen dira urtero.
- b) Atarrabiako kirol instalazioen egoera ezagutu eta honen berri ematea.
- c) Atarrabiako Udalak kirol instalazioen arloan dituen irizpideak eta ekintza-planak ezagutu eta hauen berri ematea. Hartara, arloan finkaturiko helburuak bete daitezzen hartu beharreko neurriak proposatu, eta zehazki, arloko planak eta aurrekontuak egiterakoan Kontseiluaren ahotsa entzun dadin saiatuko da.
- d) Udalaren Kirol Instalazioak Erabiltzeko Araudiaren aplikatze-mailaren jarraipena eta balorazioa egitea eta hala badagokio, artikuluetan egin beharreko aldaketak proposatzea.

- e) Kirol Instalazioen sustapenaren arloan egoki irizten diren neurriak Udalari proposatzea.
- f) Udalaren Aurrekontuan dagozkion kontu-sailen kudeaketaren inguruan Udalari proposamenak egitea, bereziki Udalaren Kirol Instalazioetako gastuen eta diru-sarreraren arloetan.
- g) Beste administrazioetako helburu bertsuak dituzten erakunde eta organoekiko harremanak eta hartu-emanak sustatzea.
- h) Kontseiluan ordezkaturik ez dauden pertsonen eta erakundeen ekimenak ezagutu eta hauen berri ematea.
- i) Kexen eta iradokizunen jakinarazpenak egitea, bai bere ekimenez, baita beste batzuegandik jasotakoak bideratuz.
- j) Atarrabiako kirol arloko aktibitateetan parte-hartzea.
- k) Atarrabiako Udalaren Kirol Instalazioetako kirol aktibitateetan parte-hartzea sustatzea.
- l) Udalaren Kirol Instalazioetako kudeaketa ezagutu, honen berri eman eta honen inguruan proposamenak egitea.
- m) Agintaldian zehar egindako jardueren gaineko txostenaren inguruan eztabaidatu eta txosten hau onartzea eta hobetzeko ekimenak proposatzea. Txosten hau udalean aurkeztuko da hartara deituko diren Kiroletako Udal Batzordean eta jarraipenekoan eztabaidatua izan dadin.
- n) AUKK lehentasunezko tokia izanen du Udalaren Kirol Instalazioetan oholtza-iragarkia eta iradokizunen postontzia paratzeko, bere jardueraren berri emateko beste bide batzuk baztertu gabe (UIA, udalaren web-orria, ...)
- o) Udalaren kirol instalazioak egoki funtziona dezaten bere laguntza ematea.
- p) Abonatuen Udal Kontseiluko abonatuaren ordezkariak Kiroletako Udal Kontseiluan parte-hartzera deituak izanen dira; hala ere, euren parte-hartzea haietako batengan delegatu ahalko dute.

5.- Funtzionamendua.

Abonatuen Udal Kontseilua, bere funtzionamenduari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen II. tituluko 2. Kapituluaren ezarritakoari jarraiki aratuko da.

- a) AUK Atarrabiako Udaletxeko geletan bilduko da, saio arruntean, Sei hilekoan behin gutxienez, eta aparteko saioan Lehendakariak edota kideen heren batek deitzen duenean.
- b) Kontseiluko kideez gain, lantzekoak diren gai buruz duten ezagutzagatik Lehendakariak egoki irizten dituen beste pertsona batzuk ere joan ahalko dira bileretara, ahotsarekin baina botorik gabe.
- c) Kontseilua baliozkoa izateko, lehen deialdian kideen erdiak gehi bat agertu beharko dute. Bigarren deialdian nahikoa izanen da kideen heren bat agertzea.
- d) Akordio guztiak bertaratuen gehiengo soilaz hartuko dira. AUKko kide bakoitzak bozka bat izanen du, talde bakoitzeko bilerara bertaratutakoaren kopurua kontuan hartu gabe.

- e) Deialdia hitzartua izanen da eta idatziz jakinaraziko zaio kide bakoitzari, bilera egin baino astebete lehenago gutxienez, premiazko kasuetan izan ezik. Deialdiari eguneko gaien zerrenda erantsikoz aio.
- f) Saio bakoitzaren akta eginen da, ondoko edukiak jasoko dituenak:
 - Bertaratutako pertsonak eta zein taldekoak diren adieraziz.
 - Eztabaida puntu garrantzizkoenak, hitza hartu duten pertsonak adieraziz.
 - Bozketaren gaia eta emaitza.
 - Txostenen edota proposamenen edukiak.
- g) Aipatu aktaren kopia dagokion dokumentazioarekin batera Atarrabiako Udalera igorriko da, Kontseiluan hartutako proposamenen jarraipena egin ahal izateko.
- h) Kontseiluak egoki irizten duenean bere eskumeneko gairen baten inguruko batzordeak edo lan-taldeak eratu edota Udaleko beste kide batzuk deitu ahalko dira bileretara.

Kontseiluko Lehendakariaren egitekoak dira:

- a) Kontseiluaren ordezkariak bere gain izatea.
- b) Kontseiluaren bileren deialdiak egitea.
- c) Bileren buru izatea. Hartara, bileretako eztabaidak eta ordena bere esku geratuko da.
- d) Kontseiluaren Lehendakariaren izaerari berari dagozkionak.

Kontseiluko Lehendakariordearen egitekoak dira:

- a) Lehendakaria ez dagoenetan honi dagozkionak: honen ordezkariak hartu eta honen ordezkaria izan.

Kontseiluaren Idazkariaren egitekoak dira:

- a) Plenoaren bileren akta jasotzea.
- b) Kontseiluaren jardura administratiboa zuzentzea.
- c) Batzorde Espezifikoen lanak koordinatzea.
- d) Kontseiluaren akordioak betetzea.
- e) Kontseiluaren Idazkariaren izaerari berari dagozkionak.

Atarrabian, 2010eko uztailaren 5ean